

# EIFFEL-KO TORRETIK

## EUSKAL-ERRIARI.



Desio nuben beti Paris-ko  
Eiffel torrera igotzia,  
beetikan oñez abiyatu ta  
muturrera iristia;  
ala det gaur nik desio ori  
beterikan ikustia,  
jzér ederra dan lan aundi ori  
ezta modu esatia!

Iduritutzen zitzaidan egan  
nindutela jaso gora,  
eguzki garbi zoragarria  
printzadunaren ondora;  
ainbeste gauza ikusi eta  
etorri zaizkit gogora,  
pozen indarrez ez dakit bertan  
nola ez naizen ni zora.

Muturretikan Euskal aldera  
aurren naiz begira jarri,  
ezin aspertu nitzan begira  
egotez andik berari;  
eguzki garbi orrek nolatan  
argitzen zuben lur ori,  
ta lurperatu *agur* egiñaz  
bere mendi tontorrari.

Zori oneko lur maitatua  
garbi zerana arkitzen,  
eguzkiaren printzak ere zu  
zaitu osoro argitzen;  
inozentziko mantu churiak  
soñian dizu luzitzen,  
mancharik gabe zeradelako  
jayo ezkerro azaltzen.

Nere biotzak zerbait emendi  
nai lizuke adierazi,  
zure mantupe zoragarrian  
naizelako ondo azi;  
laister banator aunditasun ta  
edertasunen igasi,  
nere betiko kabi maitean  
naigo det pakean bizi.

JOSÉ ARTOLA.

